

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

##### Gazteria Zerbitzua

#### Gazte Informatzaileen Sarea 2024-2025 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren ebazpena

2024ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gazte Informatzaileen Sarea 2024-2025 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren oinarriak. 2024ko uztailaren 5eko ALHAOn —75. zenbakia— argitaratu ziren oinarri horiek.

Eskabideak aurkezteko epean, guztira, 14 eskabide jaso dira, eta honako ikastetxe hauek aurkeztu dituzte:

Arkaute nekazaritzako BHI, Koldo Mitxelena BHI, Sgdo Corazón Ikastetxea "Corazonistas", Lakua BHI, Francisco de Vitoria BHI, Paula Montal Ikastetxea-Escolapias, Ekialdea BHI, Olabide Ikastola, Zabalzana BHI, San Prudentzio Ikastetxea, Los Herran BHI, Miguel de Unamuno BHI, Sansomendi IPI eta Urkide Ikastetxea.

Aurkeztutako proiektuak aztertu ondoren, Gazteria Zerbitzuko teknikariek txostena egin zuten 2024ko urriaren 16ko datarekin, eta guztiek deialdiaren oinarriak betetzen dituztenez, 14 ikastetxeetako bakoitzari 500,00 euroko zuzkidura esleitzea proposatu zuten —beraz, 7.000,00 euro emango dira, orotara, helburu horretarako—.

2024rako udal aurrekontuko 2024/0116.2371.48936 partidana bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu horri aurre egiteko.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta lege horren erregelamendua onesteko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak, eta Dirulaguntzen Udal Ordenantza —Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2023ko apirilaren 21eko ohiko osoko bilkuran eman zion hasierako onespena, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88. zenbakia) argitaratu zen—.

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak —ikusirik alkateak eskumenak eskuordetzeko 2023ko ekainaren 22an emandako dekretua, baita dirulaguntzak arautzeko ordenantza orokorraren 8.1 artikulua eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua— proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa: 500,00 euroko 14 diru-hornidura ematea onestea, guztira 7.000,00 euro. Jarraian zehazten diren 14 ikastetxeei emango zaizkie:

IES Agrario Arkaute	S4833001C
Colegio Sagrado Corazón "Corazonistas"	R0100128H
IES Francisco de Vitoria	S4833001C
IES Ekialdea BHI	S4833001C

IES Zabalzana BHI	S4833001C
IES Koldo Mitxelena BHI	S4833001C
IES Lakua BHI	S4833001C
Paula Montal Ikastetxea-Escolapias	G99344640
Ikastola Olabide	F01008366
Colegio San Prudencio Ikastetxea	F01021138
IES Miguel de Unamuno BHI	S4833001C
Colegio Urkide Ikastetxea	F01418003
CPI Sansomendi IPI	S4833001C
IES Los Herran BHI	S4833001C

Gazteria Zerbitzuaren 2024ko aurrekontuaren 2024/0116.2371.48936 partidaren kontura joango da gastua.

Bigarrena: bi epetan ordainduko da; lehena, 250,00 euro 2024ko abendutik aurrera; bigarrena, 250,00 euro, 2025eko maiatzetik aurrera.

Hirugarrena: Interesdunei erabakia jakinaraztea, ALHAOn argitaratuta, eta orobat adieraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkezteko erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsioa aurkezteko, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Laugarrena: dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikularekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 16an

*Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ**